

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Gipuzkoako Ur Kontsortzioa**

**Consortio de Aguas de Gipuzkoa**

**2018**





## AURKIBIDEA

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA .....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	9
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia .....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	10
III.1 Kontularitzako eta kontrolako alderdiak .....	10
III.2 Langileria-gastuak.....	11
III.3 Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa.....	11
IV. URTEKO KONTUAK .....	13
IV.1 Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Urteko Kontuak .....	13
IV.2 Gipuzkoako Urak SAren Urteko Kontuak .....	15
IV.3 Kontu bateratuak .....	16
ERANSKINAK .....	17
A.1 Araudi aplikagarria .....	17
A.2 Aurrekontua, aurrekontuko aldaketak eta konpromiso-kredituak .....	18
A.3 Atxikipenean jasotako eta lagatako ibilgetua eta ondarea.....	19
A.4 Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak .....	21
A.5 Ondare garbia .....	22
A.6 Taldeko enpresetan inbertsioak .....	22
A.7 Epe luzeko hornidurak .....	23
A.8 Kreditu erakundeekiko zorrak.....	23
A.9 Negozio zifraren zenbateko garbia .....	24
A.10 Hornidurak eta ustiapeneko bestelako gastuak.....	25
A.11 Langileria-gastuak.....	25
A.12 Aurrekontuaren eta ondare emaitzaren arteko berdinkatzea .....	26
A.13 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa .....	27
ALEGAZIOAK .....	29



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ÍNDICE

ABREVIATURAS .....	33
I. INTRODUCCIÓN .....	35
II. OPINIÓN .....	37
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	37
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales .....	37
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	38
III.1 Aspectos contables y de control .....	38
III.2 Gastos de personal .....	39
III.3 Contratación de bienes y servicios .....	39
IV. CUENTAS ANUALES .....	41
IV.1 Cuentas Anuales del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa .....	41
IV.2 Cuentas Anuales de Aguas de Gipuzkoa, SA. ....	43
IV.3 Cuentas consolidadas. ....	44
ANEXOS .....	45
A.1 Normativa aplicable .....	45
A.2 Presupuesto, modificaciones presupuestarias y créditos de compromiso .....	46
A.3 Inmovilizado y patrimonio recibido en adscripción y cedido .....	48
A.4 Subvenciones, donaciones y legados recibidos .....	49
A.5 Patrimonio neto .....	50
A.6 Inversiones en empresas del grupo .....	51
A.7 Provisiones a largo plazo .....	51
A.8 Deudas con entidades de crédito .....	52
A.9 Importe neto de la cifra de negocios .....	52
A.10 Aprovisionamientos y otros gastos de explotación .....	54
A.11 Gastos de personal .....	54
A.12 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial .....	55
A.13 Análisis de contratación de bienes y servicios .....	56
ALEGACIONES .....	59

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren7a

Vitoria-Gasteiz, 7 octubre de 2020



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK

BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GUSA	Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, SA.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
Urkidetza	Gipuzkoako Uren Kantsortzioa.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2017rako Lan Programan erabakitakoari jarraikiz, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren 2018ko ekitaldiaren Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

HKEEk egindako Kontsortzioaren Kontu Orokorren aurreko fiskalizazio lana 1998ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Kontsortzioaren kontuak, Gipuzkoako Urak SAren kontuak eta kontu bateratuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu. Bi erakundeen kontuak kanpoko enpresa batek ikuskatu ditu.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Kontsortzioaren helburua lehen mailako sareetan ura hornitzeko azpiegitura ezarri eta ustiatzea eta dagozkion zerbitzuak ematea da.

Kontsortzioak bere helburuak garatzeko mendeko duen GUSA sozietatearen bitartez dihardu, zeinaren akzioen % 100en jabetza baitu; GUSAk Altako sareko hornidura eta saneamendua, Bajako sarean erabiltzaileen kudeaketa eta banaketaren ustiapena, eta Kontsortziora atxikitutako udalerrien estolderia eta saneamendu zerbitzuak ematen ditu, Kontsortzioak horretarako lagatako instalazioen bitartez.

2018ko abenduaren 31n Kontsortzioaren jardun-eremuak 74 udalerrri besarkatzen ditu, 340.717 biztanlerekin. 51 udalerritan uraren ziklo osoko zerbitzua ematen da; 21 udalerritan Altako sareko hornidura eta saneamendua; et bi udalerritan bai Altako sareko hornidura eta saneamendua, bai Bajako saneamendu zerbitzua ere.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hona hemen Kontsortzioko kideak eta bakoitzari dagozkion botoak, guztira 265 osatzen dituztela:

Gipuzkoako Foru Aldundia (67)	Beasain (5)	Getaria (3)	Orexa (1)
Abaltzisketa (1)	Beizama (1)	Hernialde (1)	Orio (4)
Aduna (1)	Belauntza (1)	Ibarra (3)	Ormaiztegi (2)
Aia (2)	Berastegi (2)	Idiazabal (2)	Segura (2)
Aizarnazabal (1)	Bergara (5)	Ikaztegieta (1)	Soraluze (3)
Alegia (2)	Berrobi (1)	Irura (2)	Tolosa (7)
Altzaga (1)	Bidania-Goiatz (1)	Itsasondo (1)	Urretxu (4)
Altzo (1)	Billabona (4)	Larraul (1)	Zaldibia (2)
Amezketeta (1)	Deba (4)	Lazkao (4)	Zarautz (7)
Andoain (5)	Eibar (10)	Legazpi (4)	Zegama (2)
Anoeta (2)	Elduain (1)	Legorreta (2)	Zerain (1)
Antzuola (2)	Elgeta (2)	Leintz-Gatzaga (1)	Zestoa (3)
Arama (1)	Elgoibar (5)	Lizartza (1)	Zizurkil (3)
Aretxabaleta (4)	Ermua (7)	Mendaro (2)	Zumaia (5)
Arrasate (7)	Errezil (1)	Mutiloa (1)	Zumarraga (4)
Asteasu (2)	Eskoriatza (3)	Mutriku (4)	
Ataun (2)	Ezkio (1)	Olaberría (1)	
Azkoitia (5)	Itsaso (1)	Oñati (5)	
Azpeitia (5)	Gabiria (1)	Ordizia (5)	
Baliarrain (1)	Gaintza (1)	Orendain (1)	



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Kanpoko enpresa espezializatuek egindako langileen hautaketak -GUSAK osatutakoak- euskarrizten dituzten agiriek ez dute egiaztatzen uzten berdintasun eta merezimendu printzipioak bete diren. Egoera honek eragina du 2018ko ekitaldian izaera mugagabeko hiru lanpostutan eta aldi baterako beste hiru lanpostutan, 2019ko ekitaldian mugagabe bihurtuko direnak; baita, 2017ko ekitaldian kontrataturiko aldi baterako sei lanpostutan, 2018ko ekitaldian mugagabe bihurtuko direnak.

Bestalde, aldi baterako lau lanposturen iragarkiek ez dute jasotzen probaldi baten ostean mugagabe bihurtuko direla urtebeteko epean, eta langileen hamar kontratazioaren iragarkietan baldintza modura ezarri da Gipuzkoako probintzian bizi izatea, berdintasun printzipioa urratuz.

2. GUSAK SPKL indarrean sartu ostean eta kontratazio-espediterik izapidetu gabe 2,5 milioi euroren gastuak egikaritu ditu obra, hornidura eta zerbitzuetan, zegozkion prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeenean (ikus A.13.2 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. GUSAK erregistratutako hornidurak kontsortzioarekin izenpetutako emakida akordiotik eratorritako konpromiso hartuetatik datozen obligazioak islatzeko, ondasunen erabilera lagatzeari dagokionez (51 milioi euro abenduaren 31n), zenbatespenetan daude oinarrituak eta, zati batean, hirugarrenen txosten teknikoetan eta aurrekontuetan. Nolanahi den ere, ez dituzte aintzat hartu eguneratze finantzarioaren ondorioz sor litezkeen doiketak eta ez dute horren eraginaren zenbatespenik (ikus A.7 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako GUSARI dagokion salbuespena alde batera, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

#### III.1 KONTULARITZAKO ETA KONTROLEKO ALDERDIAK

- Kontsortzioak ez du langilerik eta kontu-hartzaitza lanak GUSAn gerenteak egiten ditu. Gogoan hartuta Kontsortzioa GFAn atxikia dagoela eta aurrekontu, kontabilitate eta kontrolari buruzko foru araudiari meneratua (ikus A.1 eranskina), iruditzen zaigu GFAn eskatu beharko litzaiokeela Kontsortzioko kontu-hartzailea izendatzea, egiteko horiek betetzeko GFAn gaituak dauden langileen artetik.
- Kontsortzioko Kontu Orokorraren Oroitidazkian barne hartutako inbertsio-konpromisoei buruzko informazioari dagokionez, 17,9 milioi euroren zenbatekodunak, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:
  - 4,4 milioi euroren konpromisoak barne hartu dira, "Amundarain-Ibiur"i dagozkionak, GFArekin 2007an izenpetutako hitzarmen batean jasoak. Alabaina, ez dira barne hartu hitzarmen berean aurreikusitako konpromisoak, "Hornidura Ataun"i dagozkionak 750.000 euroren zenbatekoan. Hitzarmenaren antzintasuna aintzat hartuta, komenigarria litzateke obra horien egoera eta konpromisoak gaurkotzea, hartara aurrekontuek zuzen jasoko dituzte Kontsortzioaren inbertsio konpromisoak.
  - Gainera, 4,9 milioi euroren konpromisoak barne hartu dira Eusko Jaurlaritzaren eta Uraren artean elkar-finantzatuko diren inbertsio batzuen kontzeptupean; ordea, txosten hau idatzi dugun datan, ez da dagokion hitzarmena izenpetu.
- Kontsortzioak inbertsioetako kapitalezko transferentzien soberako kredituak, GFArekin 2014an izenpetutako hitzarmenean barne hartutakoak, amaitu ahala txertatzen ditu; honela, bada, 2018ko ekitaldian 1,3 milioi euro txertatu dira, "zehaztu gabeak" izeneko kontu-sail batean barne hartutakoak. Kredituen txertaketak egin behar dira justifikatu gabeko arrazoiarengatik gastua egiterik edo dagokion obligazioa aitortzerik izan ez denean; ez da, baina, halakorik gertatu jada amaitu diren inbertsio hauetan.
- Kontsortzioko kontularitza sistemak ez ditu gastuen baimentze eta erabilera faseak aurreikusten, nahiz egiten den kontularitzaz kanpoko kontrol zehatz bat gastuaren egikaritzako aurrekontuko fase hauen gainean. Honi dagokionez, konpromiso kredituen egoerak ez du ematen ekitaldi itxieran kredituen egikaritza fasearen berri; ez da inongo konpromisorik gauzatu 2018ko abenduaren 31n, ez baitira dagozkion obrak esleitu.
- Kontsortzioak gastuen aurrekontuetan osotasunean erregistratzen du obrak egiteko izenpetutako hitzarmenetan aurreikusitako urteko bakoitzaren guztizkoa. Behin proiektuak balioztatu ostean, inbertsio bakoitzerako diru-izendapena gaurkotu eta aurrekontuan bereizirik jaso behar litzateke eta kredituak inbertsioaren egikaritza-fase bakoitzean erregistratu.



### III.2 LANGILERIA-GASTUAK

- GUSAk 2018ko ekitaldian aldi baterako langileen hiru kontratazio egin zituen ordezkapenatarako, inongo hautaketa prozesurik gabe.
- Lanpostu bati aplikatutako ordainsari igoera antzeko beste lanpostu batzuek betetzen dituzten egitekoekin homologatzeagatik ez da agiri bidez baimendu; organo eskudunak egin behar zukeen zegokion baimen ematea eta arrazoiketa.

### III.3 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

- GUSAk Partzuergoaren bitarteko propio pertsonifikatu izaera du, SPKLren 32. artikulua agindutakoari jarraikiz. Delako izaera hori GUSaren estatutuetan islatu behar litzateke eta Kontratazio Plataforman argitaratu.
- GUSA botere esleitzailerik da, Administrazio Publiko izaera gabea, eta honenbestez, SPKLren 316tik 320ra bitarteko artikuluek arautzen dute. Honela, bada, ez dira beharrezkoak kontratazioko barne jarraibideak, izan ere legeak horiek aurreikusten ditu botere esleitzailerik izaera ez duten sektore publikoko entitateentzat. Alabaina, GUSaren kontratatzailearen profilak barne hartzen dituen kontratazioko barne jarraibideak ez zaizkio SPKL berriari egokitzen, ez baitute jasotzen botere esleitzailerik ezargarriak zaizkien artikuluen agindua.
- GUSAk ez ditu kontratu txikien kontratazio espedienteak izapidetzen, SPKLren 118. artikulua agintzen duen moduan eta izaera orokorrarekin zenbait eskaintza eskatu ostean, dagozkion fakturak erregistratu baizik ez du egiten. Dagozkion espedienteak izapidetu behar direla uste dugu eta kontratazio atalak txostena egin behar duela, kontratuaren beharra arrazoituz, gastua onartuz eta kontratazioko arau orokorrak saihesteko kontratuaren xedea ez dela eraldatu justifikatuz. Azkenik, kontratu txikiak kontratatzailearen profilean argitaratu behar dira, gutxienez hiruhilean behin.

Obren kontratazio espedienteak aztertu ditugu (ikus A.13.1) eta honako alderdi hauek berezi ditugu:

- Ez dago obra proiektuak ustiapen zuzendariak edo obren arduradunak gainbegiratzen dituelako ebidentziarik, kontratazioko barne jarraibideek agintzen duten moduan. Gainera, proiektu horiek ez ditu kontratazio atalak onartu.
- Segurtasun eta osasun plana eta lan-programa ez ditu kontratazio atalak onartzen.
- Ez da obren harrera akta egin.

Hona hemen kontratazioko espedienteak berrikustean azaleratu diren beste alderdi batzuk:

- Guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hiru kontratazio espedientetan (3, 4 eta 11 zk.) ez da eskatu baldintza administratiboen pleguetan aurreikusitako bermea.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Guztira 1,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratazioko zortzi espedientetan (4tik 11ra bitarteko espedienteak) ez dira kontratuak egiten enpresa esleipendunekin eta horretarako baliatzen dira baldintza administratiboen pleguak, data jarriz eta lizitazio-zenbatekoak esleipenekoekin ordeztuz. Komenigarria da kontratua izenpetzea.
- Guztira 504.848 euroren zenbatekoarekin esleitutako hiru obra espedientetan, gauzatutako obrek gaintutu egiten ditzuzte esleitutako zenbatekoak % 10ekoa baino ehuneko handiagoan, ustegabeko aldaketetarako araudiak ezartzen duen gehiengoa, hala nola lizitazioko baldintza oinarrikoak eta kontratuaren esleipena aldaraztea.

### **Kontratazio espedienterik gabeko gastua**

Kontratazio espedienterik gabeko gastuak aztertu ditugu eta ikusi dugu bi hornidurari dagozkion guztira 72.638 euroren gastuak daudela, zeinaren urteko zenbatespena nekeza izan baitaiteke prozedura ireki erraztu bidez izapidetzeko, baina errepikariak direnak; aztertu egin behar lirateke prozedura laburtu bidez kontratatu ahal izateko, eta egokia denean, aleko prezioen arabera (ikus A.13.2 eranskina).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV. URTEKO KONTUAK

### IV.1 GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN URTEKO KONTUAK

#### IV.1.1 AURREKONTUKO KONTUAK

##### A. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2018

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide		Kobratu gabea
		Hasierak	Aldatua	Behin bet.	aitortuak	Kobran.	
3.-Tasak eta bestelako sarrerak .....	A9	7.900	-	7.900	7.600	2.343	5.257
5.- Ondare sarrerak .....		1	-	1	-	-	-
7.- Kapital transferentziak .....	A2	-	1.135	1.135	1.135	1.135	-
8.-Aktibo finantzarioak .....	A2	-	1.683	1.683	-	-	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>7.901</b>	<b>2.818</b>	<b>10.719</b>	<b>8.735</b>	<b>3.478</b>	<b>5.257</b>

  

DIRU-SARRERAK	Eransk.	Aurrekontua			Obligazio		Ordaindu gabea
		Hasierak	Aldatua	Behin bet.	aitortuak	Ordaink.	
2.-Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan		40	5	45	33	33	-
3.-Gastu finantzarioak .....		390	(5)	385	109	109	-
6.- Inbertsio errealak .....		-	358	358	216	175	41
7.- Kapital transferentziak .....	A2	321	2.460	2.781	-	-	-
3.-Pasibo finantzarioak .....	A8	7.150	-	7.150	7.128	7.128	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>7.901</b>	<b>2.818</b>	<b>10.719</b>	<b>7.486</b>	<b>7.445</b>	<b>41</b>

##### B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

	Hasierako zorra	Baliog.	Kobrans/ Ordaink.	Azken zorra
Zordunak .....	4.434	-	(4.434)	-
Hartzekodunak .....	(12)	-	12	-

##### C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2018

Euroak milakotan

Eskubide aitortuak .....	8.735
Obligazio aitortuak .....	(7.486)
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>1.249</b>
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako obligazio aitortuak .....	216
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA DOITUA</b>	<b>1.465</b>

##### D. DIRUZAINZA GELDIKINA 2018.12.31N

Euroak milakotan

Funts likidoak .....	1.597
Aurrekontuko kobratzeko dauden eskubideak .....	5.257
Hartzekodun ez aurrekontukoak .....	1.104
Aurrekontutik ordaintzeke dauden obligazioak .....	(41)
Hartzekodun ez aurrekontukoak .....	(966)
<b>DOITUTAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>	<b>6.951</b>
Diruzaintza Geldikina, finantzaketa kredituen txertaketa bidez .....	(2.923)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>	<b>4.028</b>

##### E. KONPROMISO KREDITUEN EGOERA 31.12.2018AN

Euroak milakotan

Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko hitzarmena (2019-2022)	4.050
---	-------



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.1.2 ONDARE KONTUAK

A. Egoeraren Balantzeak 2018 eta 2017ko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
AKTIBOA	Eransk.	2018	2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eransk.	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>4.052</b>	<b>3.953</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>A5</b>	<b>(22.392)</b>	<b>(30.866)</b>
Ibilgetu materiala.....	A3	521	422	Ondarea .....		206	206
Taldeko enpresetan inbertsioak.....	A6	3.531	3.531	Atxikipenean jasotako ondarea .....	A3	98.491	98.491
				Aurreko ekitaldietako emaitza.....		93.892	86.096
				GUSArri lagatako ondarea.....	A3	(223.620)	(221.687)
				Ekitaldiaren emaitza .....		8.474	5.863
				Dirulag., dohain. eta jasot. legat.	A4	165	165
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>7.958</b>	<b>6.649</b>	<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>30.872</b>	<b>37.643</b>
Merkat zordunak eta bestel. knt .....		6.361	5.365	Epe luzeko zorrak .....	A8	29.631	36.404
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz.		1.597	1.284	Taldeko enpresekiko zorrak.....	A6	1.241	1.239
				<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>3.530</b>	<b>3.825</b>
				Epe laburreko zorrak.....	A8	2.564	2.889
				Merkat. zordunak eta bestel. knt ..		966	936
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>12.010</b>	<b>10.602</b>	<b>OND. GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>12.010</b>	<b>10.602</b>

B. 2018 eta 2017ko ekitaldietako Galera eta Irabazien Kontuak			Euroak milakotan	
	Eransk.	2018	2017	
Zerga sarrerak .....	A9	7.600	7.500	
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....		(103)	(1.932)	
Ustiapeneko beste gastu batzuk .....		(86)	(111)	
Beste emaitza batzuk .....	A2	1.121	474	
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>		<b>8.532</b>	<b>5.931</b>	
<b>Gastu finantzarioak</b>		<b>(58)</b>	<b>(68)</b>	
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>(58)</b>	<b>(68)</b>	
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>		<b>8.474</b>	<b>5.863</b>	



## IV.2 GIPUZKOAKO URAK SA-REN URTEKO KONTUAK

### A. Egoeraren Balantzeak 2018 eta 2017ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

AKTIBOA	Eransk.	2018	2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eransk.	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>438.849</b>	<b>447.734</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>A5</b>	<b>418.511</b>	<b>428.468</b>
Ibilgetu ez-materiala.....	A3	423.312	432.818	Kapitalezkoak .....	A6	2.486	2.486
Ibilgetu materiala .....	A3	14.281	13.662	Erreserbak.....		561	561
Taldeko enpresetan inbertsioak .....	A6	1.241	1.239	Aurreko ekitaldien emaitzak.....		(5.542)	(5.827)
Epe luzeko finantza-inbertsioak .....		15	15	Bazkideen beste ekarpen batzuk ....	A6	1.045	1.045
				Ekitaldiaren emaitza.....		(808)	285
				Dirulag., dohain. eta jasot. legat.....	A4	420.769	429.918
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>48.727</b>	<b>45.601</b>	<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>54.159</b>	<b>51.878</b>
Izakinak .....		717	817	Epe luzeko hornidurak .....	A7	54.108	51.795
Merkat zordunak eta bestel. knt .....		14.568	14.754	Epe luzeko zorrak .....		51	83
Epe motzeko finantza inbertsioak.....		27.527	27.978	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>14.906</b>	<b>12.989</b>
Aldizkatzeak epe laburrera .....		1.189	1.209	Epe laburreko hornidurak.....		1.413	1.179
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz. ....		4.726	843	Epe laburreko zorrak.....		388	471
				Merkat zordunak eta bestel. knt ....		13.105	11.339
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>487.576</b>	<b>493.335</b>	<b>OND. GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>487.576</b>	<b>493.335</b>

### B. 2018 eta 2017ko ekitaldietako Galera eta Irabazien Kontuak

Euroak milakotan

	Eransk.	2018	2017
Negozio zifraren zenbateko garbia .....	A9	37.610	37.336
Enpresak aktiborako egindako lanak .....		108	62
Hornikuntzak .....	A10	(4.149)	(3.730)
Ustiapeneko bestelako sarrerak .....		1	-
Langileria-gastuak .....	A11	(11.439)	(11.103)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	A10	(21.310)	(20.786)
Ibilgetua amortizatzea .....	A3	(12.464)	(12.150)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte.....	A4	10.884	10.579
Beste emaitza batzuk .....		(83)	57
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>		<b>(842)</b>	<b>265</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>34</b>	<b>20</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKOA</b>		<b>(808)</b>	<b>285</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>		<b>(808)</b>	<b>285</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### IV.3 KONTU BATERATUAK

#### A. Egoeraren Balantze Bateratuak 2018 eta 2017ko abenduaren 31n Euroak milakotan

AKTIBOA	Eransk.	2018	2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eransk.	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>438.129</b>	<b>446.916</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>A5</b>	<b>392.588</b>	<b>394.072</b>
Ibilgetu ez-materiala .....	A3	11.099	12.209	Kapitalezkoak .....		206	206
Ibilgetu materiala .....	A3	427.015	434.693	Erreserbak.....		63.915	58.016
Epe luzeko finantza-inbertsioak .....		15	14	Ekitaldiaren emaitza.....		5.572	5.900
				Dirulag., dohain. eta jasot. legat.....	A4	322.895	329.950
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>50.324</b>	<b>46.886</b>	<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>83.790</b>	<b>88.282</b>
Izakinak .....		717	817	Epe luzeko hornidurak .....		54.108	51.795
Merkat zordunak eta bestel. knt .....		14.568	14.754	Epe luzeko zorrak .....		29.682	36.487
Epe motzeko finantza inbertsioak.....		27.527	27.978				
Aldizkatzeak epe laburrera .....		1.189	1.209	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>12.075</b>	<b>11.448</b>
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz. ...		6.323	2.128	Epe laburreko hornidurak.....		1.413	1.179
				Epe laburreko zorrak.....		2.952	3.360
				Merkat zordunak eta bestel. knt ....		7.710	6.909
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>488.453</b>	<b>493.802</b>	<b>OND. GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>488.453</b>	<b>493.802</b>

#### B. 2018 eta 2017ko ekitaldietako Galera-lrabazien Kontuak Euroak milakotan

	2018	2017
Negozio zifraren zenbateko garbia .....	37.610	37.336
Enpresak aktiborako egindako lanak .....	108	62
Hornikuntzak .....	(4.149)	(3.730)
Ustiapeneko bestelako sarrerak .....	1	-
Langileria-gastuak .....	(11.439)	(11.103)
Ustiapeneko beste gastu batzuk .....	(13.796)	(13.397)
Ibilgetua amortizatzea .....	A3 (12.464)	(12.150)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozteak.....	A4 8.687	8.397
Beste emaitza batzuk .....	1.038	532
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>5.596</b>	<b>5.947</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>(24)</b>	<b>(47)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKOIA</b>	<b>5.572</b>	<b>5.900</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>5.572</b>	<b>5.900</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ERANSKINAK

### A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

Kontsortzioko Estatutuek zera agintzen dute:

- Urriaren 1eko Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 120. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikita geratu da. Foru araudiak zehaztuko du atxikipen horren edukia eta zabala (3.2 art.).
- Kontsortzioaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoa Estatutu hauetan aurreikusitakoari egokituko zaio eta ordezko izaerarekin, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeari, aurrekoa garatzen duten Autonomia Erkidegoko Xedapenei, toki entitateei ezargarriak zaizkien gainerako xedapen legezko eta arauzkoei, eta Uraren Legeari eta gai hau arautzen duten sektoreko beste xedapen batzuei (5. art.).

Martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearenak, bederatzigarren xedapen gehigarria txertatzen du (abendua 23ko 8/2016 Foru Arauan aldaketak eginda, zeinaren bidez 2017ko urterako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrak onartzen baitira) eta xedapen gehigarri horrek GFARA atxikitako Partzuergoak arautzen ditu; hona hemen horren edukia:

- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 120. artikuluan jasotakoaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako partzuergoak lotuta geldituko dira foru arau honetan jasotako aurrekontu, finantza, kontabilitate eta kontrol araubideari eta hori garatzeko araudiari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako partzuergoen aurrekontuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorraren zati dira.

Dena den, Foru Aldundiari atxikita dauden baina Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 120. artikuluan 2. puntuko a) letratik e) letrara bitartean jasotako zirkunstantzietako bat ere ez gertatzeagatik haren erabaki ahalmenari lotuta ez dauden partzuergoen aurrekontuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorraren barruan sartuko dira, Ogasun eta Finantza Departamentuak erabakitzen duenaren arabera.

- Partzuergo horiek egiten dituzten epe luzerako zorpetze eragiketek Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurretiazko baimena beharko dute, Ogasun eta Finantza Departamentuak ezarritako baldintzetan.»

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak agintzen du partzuergoak atxikirik dauden administrazioiko ondare-arauek arautuko dituztela.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Aipatu ditugun xedapenez gain, honako araudi ezargarri hau azpimarratzen dugu:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- 51/2012 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, GLHko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legea onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

GUSA Kongsortzioak soil-soilik partaidetutako sozietatea da, honako hauek arautua: bere Estatutu propioek, administrazioko legedi espezifikokoak eta orokorrean sozietate anonimoei ezargarriak zaizkien lege zibil eta merkataritzakoek.

Ondasun eta zerbitzuen edo inbertsioen kontratazioaren esparruan GUSA botere esleitzale da, SPKLren 3.3 artikulua araber, eta bere kontratuak, 26. artikulua araber, pribatuak dira; bada, kontratu horien prestaketa, esleipena, ondorioak eta iraungipena SPKLren 317tik 320ra bitarteko artikuluetan xedatutakoak arautuko ditu. Langileen kontratazioari dagokionez, ezargarria den arautegian garatzen diren arbitrariotasunaren interdikzio, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago (Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina).

## **A.2 AURREKONTUA, AURREKONTUKO ALDAKETAK ETA KONPROMISO-KREDITUAK**

Kongsortzioaren 2018ko aurrekontua batzar nagusiaren 2017ko urriaren 6ko erabaki bidez onartu zen eta GAOn 2017ko urriaren 13an eman zen argitara; erreklamaziorik batere jaso gabe hilabete igaro ondoren, argitara emandako agiria behin betiko onartu eta 2017ko azaroaren 16ko GAOn argitaratzen da. Kongsortzioaren 2018ko urteko kontuak, GUSArenak eta kontu bateratuak Kongsortzioko batzar nagusiak 2019ko maiatzaren 3an onartu zituen.

### **Aurrekontuko aldaketak**

2018ko ekitaldian honako aldaketa hauek egin ziren aurrekontuan:

- 2017ko ekitaldiko kreditu txertaketak, 1,7 milioi eurorenak, Diruzaintza Geldikin bidez finantzatutakoak. Kreditu hauek ez dira 2018ko ekitaldian egikaritu eta 2019ko aurrekontuari txertatu zaizkio berriz.

- Guztira 1,1 milioi euroren kreditu osagarriak, dirulaguntza bidez finantzatuak: GFAtik jasotako 135.000 euro eta Uraren Euskal Agentzietatik jasotako 1 milioi euro, Kontsortzioak aurreko urteetan jada egindako inbertsioak finantzatzeko. Sarrera hauek aurrekontuan erregistratzen dira “Kapital transferentziengatik sarrerak” kontu-sailean eta galera eta irabazien kontuko “Beste emaitza batzuk” partidan.

Hasierako kredituaren 2,8 milioi euroren igoera hau, ia osotasunean, Kapitalezko transferentziak gastu kapitularako da, 2018ko ekitaldian exekuziorik izan ez duena, gastuen aurrekontuak egikaritze txikia izatearen arrazoi (% 69,8).

### Konpromiso-kredituak

2018ko ekitaldiko aurrekontuak urteanitzeko aurrekontuak besarkatzen ditu eta 2,5 milioi euroren transferentziak jasotzen dituzte. Gerora, 2018ko abenduan hitzarmena sinatu zen GFArekin eta hurrengo ekitaldietan Kontsortzioak finantzatu beharreko zenbatekoa 5 milioi euro izango da (BEZa barne). Honekin lotuta, aurrekontuaren likidazioari dagokionez jaulkitako txostenak 4 milioi euroren konpromiso-kredituak barne hartzen ditu 2019-2022 aldirako kapitalezko transferentzien kapitularian, aipatutako hitzarmenean aurreikusitako inbertsioenak.

## A.3 ATXIKIPENEAN JASOTAKO ETA LAGATAKO IBILGETUA ETA ONDAREA

### Ibilgetu ukiezina eta materiala

Kontsortzioaren eta GUSAREN kontu bateratuek eta banakakoek islatzen duten informazioa honako hau da:

	Euroak milakotan	
	2018	2017
Ziklo osoko sareen erabilera-eskubideak .....	6.966	8.234
Ziklo oso bakoitzeko ustiapen-eskubideak .....	2.838	3.521
Ibilgetu ukiezinatarako aurrerakinak .....	922	41
Garapena .....	28	32
Aplikazio informatikoak .....	345	381
<b>IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA</b>	<b>11.099</b>	<b>12.209</b>
GUSARI lagatako Partzuergoko azpiegiturak .....	412.213	420.609
GUSAREN lursailak eta eraikinak .....	7.331	7.326
Instalazio teknikoak eta GUSAREN beste immaterial bat.....	6.882	5.680
Abian dagoen ibilgetua .....	589	1.078
<b>IBILGETU MATERIALA GUZTIRA</b>	<b>427.015</b>	<b>434.693</b>
<b>IBILGETU BATERATUA GUZTIRA</b>	<b>438.114</b>	<b>446.902</b>
KONTSORTZIOAREN KONTUAK		
Ibilgetu materiala.....	521	422
GUSA-REN KONTUAK		
Ibilgetu ukiezina .....	423.312	432.818
Ibilgetu materiala.....	14.281	13.662

Kontsortzioak obrak eta instalazioak jaso ditu Norteko Konfederazio Hidrografikotik eta Kontsortziara atxikitako zenbait udaletatik, gehienak 1994an eratu zen unean, eta “Atxikipenean jasotako ondarea” kontuan daude jasoak 98,5 milioi euroren balioarekin. Ondasun hauek Kontsortzioak eraikitako ibilgetuarekin batera GUSArri laga zaizkio behin obrak amaitu ostean. Honela, bada, Kontsortzioaren ibilgetuak abiango Ibilgetu materiala jasotzen du eta GUSAk Ibilgetu ukiezinean, besteak beste, Kontsortzioak lagatako aktiboen ustiapen-eskubideak erregistratzen ditu, zeinak 2018ko abenduaren 31n 412,2 milioi euroren amortizazio kostu garbia baitu, eta ibilgetu bateratu guztiaren % 94 egiten baitute.

Ibilgetu kontsolidatuak 8,8 milioi euro egin du behera 2018ko ekitaldian, nagusiki ekitaldiko amortizaziorako egin den 12,5 milioi euroren zuzkiduragatik eta GUSArri ibilgetuan erregistratu diren 3,5 milioi euroren altengatik (2,1 milioi euro ibilgetu ukiezinean eta 1,4 milioi euro ibilgetu materialean).

### Atxikipenean jasotako ondarea eta lagatako ondarea

Kontsortzioko kontuek erakusten dute atxikipenean jasotako 98,5 milioi euroren ondare bat eta GUSArri lagatako ondare bat, 223,6 milioi eurorena; kopuru hau eskuratzen da aktibo horiek finantzatzeko beste administrazio batzuetatik jasotako dirulaguntzen kopuruari - 316,5 milioi euro- lagatako azpiegituren kostua murriztetik (ikus A.4).

GUSAk ibilgetu ukiezin modura erregistratzen ditu erabilera eskubideak, jasotako azpiegituren kostuaren guztizkoarekin, eta aktibo horiek amortizatzen ditu. Kontrapartida “Dirulaguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak” kontua da, eta dagokion diru-sarreretako erregistroa emaitzen kontuan egiten da. Honela, bada, GUSArri ibilgetu ukiezinak, 2018ko abenduaren 31n 412,2 milioi euroren balio garbia zuenak, kontrapartida “Dirulaguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak” kontuan du, zenbateko berean (ikus A.4).

KONTUA	Euroak milakotan				
	Kostua	Amortizaz. zuzkid.	Garbia	Dirulaguntzak	GUZTIRA
<b>Atxikipenean jasotako ondarea</b>	<b>105.401</b>	<b>(*)(6.910)</b>	<b>98.491</b>	-	<b>98.491</b>
Atxikipenean jasotako ondarearen lagapena .....	105.401	(6.910)	98.491	-	98.491
GUSArri lagatako Partzuergoko azpiegiturak .....	441.680	-	441.680	(316.488)	125.192
2018ko eragiketak, 2019an erregistratuak.....	(881)	-	(881)	778	(103)
Beste txiki batzuk.....	(214)	-	(214)	254	40
<b>Lagapenean dagoen ondarea</b>	<b>545.986</b>	<b>(6.910)</b>	<b>539.076</b>	<b>(315.456)</b>	<b>223.620</b>
2018ko eragiketak guztira .....	881	-	881		
Amortizazio metatua GUSArri .....	-	(128.129)	(128.129)		
Beste mugimendu txiki batzuk .....	270	115	385		
<b>GUSArri Ibilgetu ukiezina</b>					
<b>Partzuergoak lagatako aktibo</b>					
<b>ustiapen-eskubideak</b>	<b>547.137</b>	<b>(134.924)</b>	<b>412.213</b>		

(\*) Atxikipenean jasotako aktiboaren lagapenean kostuaren eta amortizazioaren arteko bereizketari eusten zaio.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### A.4 JASOTAKO DIRULAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK

JASOTAKO DIRULAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK	Euroak milakotan			
	Saldoa 2017.12.31n	Gehikuntzak	Emaizari aplikatuta	Saldoa 2018.12.31n
GFaren dirulaguntza Amundarain-lbiur lotura.....	165	-	-	165
<b>URKIDETZA</b>	<b>165</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>165</b>
Partzuegoko ondasunak lagatzeagatiko dirulaguntza.....	420.609	881	(9.277)	412.213
Uraren ziklo integrala udal sareei lagatzeagatiko dirulaguntza....	8.234	282	(1.549)	6.967
Bestelako dirulaguntzak.....	1.075	572	(58)	1.589
<b>GUSA</b>	<b>429.918</b>	<b>1.735</b>	<b>(10.884)</b>	<b>420.769</b>
Kontsortzioak finantzatutako ondasunak .....	(100.133)	(103)	2.197	(98.039)
<b>KONTU BATERATUAK</b>	<b>329.950</b>	<b>1.632</b>	<b>(8.687)</b>	<b>322.895</b>

Kontsortzioko Egoeraren Balantzean “Dirulaguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak” kontuan jasotzen dira amaitu ez diren eta GUSArri laga ez zaizkion azpiegiturei dagozkien dirulaguntzak.

GUSArri “Dirulaguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak” kontuan erregistratzen du jasotako ibilgetu ukiezinaren kostua eta kontu hori murriztuz doa amortizazioaren arabera emaitzen kontuko dirusarrerei egotzen zaielako; esanguratsuen Kontsortzioak lagatuko aktiboena da, 2018ko abenduaren 31n 412,2 milioi euro egin dituen (ikus A.3).

Kontu bateratuetan Pasiboan erregistratzen dira 322,9 milioi euroren “Dirulaguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak”, beste administrazio batzuetatik jasotako dirulaguntzen eta Kontsortzioak atxikipenean jasotako ondarearen kontzeptuan; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	2018/12/31
<b>GUSArri lagatako ondasuneng. jasotako dirulaguntzak</b>	<b>258.061</b>
GFA .....	100.349
Eusko Jaurlaritz.....	90.075
Estatua.....	51.905
Kohesio Funtzak.....	15.002
SPRI.....	592
Beste batzuk .....	138
<b>Kontsortzioko ondasuneng. jasotako dirulaguntzak</b>	<b>165</b>
GFA .....	165
<b>Kontsortzioak lagapenean jasotako ibilgetua</b>	<b>63.080</b>
Atxikipenean jasotako ondarea .....	56.113
Uraren ziklo integraleko udal sareak .....	6.967
<b>Bestelako dirulaguntzak</b>	<b>1.589</b>
<b>KONTU BATERATUAK</b>	<b>322.895</b>

## A.5 ONDARE GARBIA

Hona hemen Ondare Garbian kontsolidazioaren eragina:

	Euroak milakotan
	2018
Kontsortzioaren ondare garbia .....	(22.392)
GUSAren ondare garbia.....	418.511
Ibilgetu finantzarioaren doikuntza Kontsortzian (ikus A.6).....	(3.531)
<b>ONDARE BATERATU GARBIA</b>	<b>392.588</b>

Lehen mailako sareetan ura eta saneamendua hornitzeko azpiegitura (Kontsortzioak GUSAren alde finantzatutakoa) laga izanak ondarean izan duen efektuak eragin du nagusiki Kontsortzioaren ondare negatibo egoera (negatiboa 2017 eta 2018ko ekitaldien itxieran, hurrenez hurren 30,9 eta 22,4 milioi euroan, 2018ko ekitaldian izandako 8,5 milioi euroren emaitza positiboagatik). Kontsortzioak hainbat erakunde publikorekin lankidetzaz hitzarmenak izenpetuak dituen heinean, zeinaren indarrez kapitalezko dirulaguntzen bidezko finantzaketa eskema bat finkatzen baita, eta urteko finantzaketa bat dagoen heinean, finantzaketa kanon baten kontzeptuarekin GUSAk jasotakoa, Kontsortzioak ez du arazorik etorkizuneko inbertsio konpromisoak gauzatu eta indarreko finantza zorraren mugaegunari aurre egiteko. Honenbestez, Kontsortzioak finantza egoerak mamitu ditu Jarduneko enpresaren printzipioaren pean.

## A.6 TALDEKO ENPRESETAN INBERTSIOAK

### Kontsortzioa

Kontsortzioak GUSA sozietatearen kapital sozialaren % 100ean parte hartzen du eta horren ondare balioa 2018ko abenduaren 31n 418,5 milioi euro da. Kontsortzioko kontuetan partaidetzaren balioa 3,5 milioi euro da eta "Kapital sozial"eko kontuen 2,5 milioi euroren saldoak eta GUSAren Balantzeko 1 milioi eurok osatzen dute.

### GUSA

GUSAk mailegu bat eman zion Kontsortzioari eta horren kobratzeko saldoa Sozietatean eta ordaintzekoa Kontsortzian 1,2 milioi euro da. Maileguak eragiten duen interes tipoa Kontsortzioak kreditu-etxeekin duen zorraren batez besteko kostuaren pareko da eta ordaingarria izango da Kontsortzioak itzultzea erabakitzen duen unean, bai printzipala, bai interes metatuak ere.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.7 EPE LUZEKO HORNIDURAK

